

Buruketak

Josuk 126 botila kutxatan banatu zituen. 6 botila jarri zituen kutxa bakoitzean. Zenbat kutxa behar izan zituen? Geratu al zitzaion botilarik kutxetatik kanpo?

Uxuak hainbat liburu 4 gelatan banatu ditu. 125 liburu utzi ditu gela bakoitzean. Zenbat liburu banatu ditu guztira?

4 lagun bi opari erostera joan dira. Opariak lauren artean ordaindu behar dituzte. Opari batek 58 € balio du, eta besteak, 22 €. Zenbat diru jarri behar du bakoitzak?

Josuk bi puzzle berdin osatu ditu, eta horretarako, 1.500 pieza ondo jarri behar izan ditu. Zenbat pieza ditu puzzle bakoitzak?